Los Servicios Técnicos Municipales, mediante informe técnico, valorarán la aptitud del local para albergar en él una vivienda, de conformidad con los criterios establecidos en los artículos 3, 4 y 5 de esta ordenanza, así como los establecidos en el Plan General de Ordenación Urbana.

Areto horrek eskatutako baldintzak betetzen baditu eta horren aldeko txosten teknikoa jasotzen badu, udaleko organo eskudunak erabilera aldatzeko baimenari buruzko erabakia emango du, eta erabaki horretan bertan jarduera horri dagokion hirigintza-kargaren zenbatekoa adieraziko du. Erabilera-aldaketaren hirigintza-baimena emateko organo eskuduna alkatea edo Udaltzako lehendakaria izango da.

Erabilera-aldaketa horren hasierarako baimena jabeak eta alkate-lehendakariak izenpetuko duten hitzarmen baten bitartez gauzatuko da, eta bertan zehaztuko da hirigintza-kargaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua. Hitzarmena hilabeteko gehie-nezko epean sinatu beharko da erabilera-aldaketaren baimena ematen denetik kontatzen hasita.

Eskatzaileari egotz dakioken arrazoi bategatik hitzarmen hori ez bada adierazitako epean izenpetzen, prozedura horrek hasieraraino egingo du atzera, alegia, eskaera berri bat aurkeztu beharko da.

Aurreko hori halaxe egingo da, hirugarrengoen eskubideei eta jarduera horrek jabetza horizontaleko tituluan eragin ditzakeen aldaketei kalterik egin gabe.

Erabilera aldatzeko eskubidea hitzarmena izenpetzen denean eta hirigintza-karga ordaindu ondoren eskuratuko da, eta biak aldi berean egin beharrekoak izango dira. Hitzarmenerako eredia II. eranskinean jasoa dago.

6.2. Obra-baimena:

Etxebizitza berriaren egokitzapen-obretarako baimena erdiesteko, interesatuak, hitzarmena sinatzen denetik bi hilabete epean (beste hilabete batez luzatu ahal da, baldin eta arrazoiak justifikatzen duen agiri bat aurkezten bada), eskaerarekin batera, proiektu tekniko bat aurkeztu beharko du, teknikari eskudunak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak onetsia, Urnietako Hiri Antolamendurako Plan orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik.

Lizentziak gauzatzeko baldintza eta epeei dagokionez, Hiri Antolamendurako Hirigintza Arauetan xedatutakoa beteko da.

Obra-baimenaren titularrak baimen hori eskualdatu ahal izango du, betiere aretoaren jabetza ere eskualdatzen bada, baina xehetasun hori Udalarari jakinarazi beharko dio, eta hark dagokion erabakia hartuko du, erabilera-aldaketarako baimenaren bidez eta hitzarmenaren bidez eskuratutako eskubideak ere horrekin batera eskualdatzen direla ulerturik. Jakinarazpen hori eskualdatzaileak eta eskuratzaileak izenpetuta egon beharko du.

6.3. Lehen erabilerarako baimena:

Obra amaitu ondoren, lehen erabilerarako baimena eskatu beharko da, Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorreko Hirigintza Arauetan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta, eta hori emateko ezinbesteko baldintza izango da etxebizitza berriaren eta herriko zerbitzu-sareen arteko konexioa egina egotea: Ur-hornidura, saneamendua, energia elektrikoaren hornidura eta, hala egokitzuz gero, gasaren hornidura.

Lehen erabilerarako lizentzia eman eta gero, Udalean dagokion eskriturak aurkeztu beharko dira, Erregistroaren oniritziarekin batera, lokala etxebizitza izatera pasatzeko. Hori guztia, Udalak eroldaketa eta erabilera aldaketaren ziurtagiria egin ditzan, lokalaren etxebizitza izaera berriarekin.

Urtebeteko epean obra amaitu, lehen erabilerarako baimena erdietsi eta etxebizitzara bizitzera etorri beharko da, obra-baimena ematen denetik kontatzen hasita, obrak hasteko luzapen bat eman ezean.

Si el local reúne los requisitos exigidos y cuenta con informe técnico favorable, el órgano competente municipal resolverá la concesión de la licencia de cambio de uso y expresará en el mismo acuerdo el importe al que ascienda la carga urbanística correspondiente a la actuación. El órgano competente para conceder la licencia urbanística de cambio de uso será el Alcalde-Presidente de la Corporación.

La autorización para el inicio del procedimiento para el cambio de uso se materializará mediante un Convenio que suscribirán el propietario y el Alcalde-Presidente, en el que se cuantificará la carga urbanística y su forma de pago. La firma del Convenio deberá realizarse en el plazo máximo de un mes desde la concesión de la licencia de cambio de uso.

Caso de no suscribirse el Convenio en el plazo señalado por causa imputable al solicitante, el procedimiento se retrotraerá al inicio, es decir, habrá de presentarse nueva solicitud.

Todo lo anterior se efectuará sin perjuicio de los derechos de tercero y de las modificaciones del título de propiedad horizontal que en su caso pudiera exigir la actuación.

El derecho para el cambio de uso se adquirirá en el momento de la suscripción del Convenio y una vez realizado el abono de las cargas urbanística que deberá ser simultáneo. El modelo tipo de Convenio se incluye Anejo II.

6.2. Licencia de obras:

Para la obtención de la licencia de obras de acondicionamiento de la nueva vivienda el interesado deberá presentar en el plazo de dos meses (prorrogable por un mes en caso de presentar justificación) desde la firma del Convenio, junto con la solicitud, un Proyecto Técnico, suscrito por técnico competente y visado por el Colegio Profesional correspondiente, de conformidad con lo establecido en el Plan general de ordenación urbana de Urnieta.

Respecto a las condiciones y plazos de ejecución de las licencias se estará a lo dispuesto en las Normas Urbanísticas de las Plan general de ordenación urbana.

El titular de la licencia de obras podrá transmitirla siempre que se transmita la propiedad del local, notificando este extremo al Ayuntamiento el cual adoptará el acuerdo correspondiente, entendiéndose que con ella se transmiten conjuntamente los derechos adquiridos por la licencia de cambio de uso y por el Convenio. Dicha notificación deberá estar suscrita, conjuntamente, por el transmisor y por el adquirente.

6.3. Licencia de primera utilización:

Una vez finalizada la obra, deberá solicitarse licencia de primera utilización, acompañada de la documentación exigida en las Normas Urbanísticas de las Plan general de ordenación urbana, siendo requisito indispensable para su concesión que se haya efectuado la conexión efectiva de la nueva vivienda a las redes de servicios urbanos: Abastecimiento de agua, saneamiento, suministro de energía eléctrica y, en su caso, suministro de gas.

Una vez concedida la licencia de primera utilización, deberán presentarse en el Ayuntamiento las correspondientes escrituras junto con el visto bueno del Registro para proceder a la efectiva transformación del local en vivienda. Todo ello a los efectos de proceder al empadronamiento y emisión por parte del Ayuntamiento del certificado de cambio de uso producido y de la nueva condición de vivienda del local.

La obra deberá encontrarse finalizada, la licencia de primera utilización obtenida y la vivienda habitada en el plazo de un año a contar desde la firma del Convenio, excepto en el caso en que se hubiera concedido una prórroga para el inicio de las obras.

Hori betetzen ez bada, interesatuak erabilera-aldaketarako eskuratu duen eskubidea galdu egingo du eta, zigor modura, hirigintza-kargaren kontzeptupean ordaindu duen zenbatekoaren %50 bakarrik itzuliko zaio.

7. artikulua. Hirigintza-karga.

7.1. Sustatutako esku-hartzeek etxebizitza kopurua handitzea dakar, eta, hori dela eta, etxebizitzaren eta guneez libreen sistemaren arteko erlazioa gordetzeko, ordenantza honek kontuan hartzen du alderdi hori.

Horrenbestez, Udalari ekarpen ekonomiko bat egiteko eskatuko zaio esku-hartze bakoitzaren sustatzaileari; Udalak, bestalde, ekarpen horiek jabari publikoa lortzeko erabiliko ditu, guneez libreen sistemari atxikitzeko.

Hirigintza-kargetarako, etxebizitzaren eta merkataritza-aretoen eragin balioaren arteko diferentziaren % ordainduko da./ 54,93 € / m² (2014.urteari dagokionez) bakoitzeko. (Zenbateko honek urtero EAEko KPIaren arabera igoera izango du).

7.2. Ordenantzak indarraldia duen lehen urte honetarako ezarritako kopuru hori urtero eguneratuko da Estatistikaren Institutu Nazionalak Euskal Autonomia Erkidegorako ezartzen duen Kontsumoko Prezioen Indizea oinarritzat harturik.

Ez da inolako erabilera-aldaketarik onartuko jarduera horri dagokion hirigintza-karga ordaintzen ez den bitartean, eta horretarako, ordainketa horren egiaztagiria edo agiri baliokidea aurkeztu beharko da, kasu bakoitzean.

8. artikulua. Baimen horrek bete beharko dituen baldintzak.

Urnietako Udalak lortu nahi dituen helburuak bermatzearren, eta etxebizitzaren merkatuan zuzenean eragiteko helburuarekin, aretoen gainean espekulaziorik sor ez dadin, eta izaera partikularra duten eta indarreko araudiarekin bat etorritik ezar litezkeen beste baldintza batzuk gorabehera, baimen horiek izaera orokorreko honako baldintzen menpe geratuko dira, eta hala agerraraziko da izenpetu beharreko hitzarmenean.

Ordenantza honen aplikazioa dela eta, aretoen erabilera aldatuz lortzen diren etxebizitzek Araubide Bereziko udal etxebizitza tasatuaren kalifikazio iraunkorra izango dute. Araubide Bereziko udal etxebizitza tasatu hauek, garaje eta trasteleku atxikiak barne, gehenez babes ofizialeko etxebizitza tasatuarentako aplikatzekoa den araudi autonomikoak ezartzen duen gehieneko salmenta-prezioa izango dute. Nolanahi ere, ezin gaindituko da 1,5eko indizea, Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez.

Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioari dagokionez, lortzen diren etxebizitzetan gehieneko salmenta-prezio horiek beteko direla bermatzeko, horien gainean lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide bat ezarriko da Udalaren alde.

Etxebizitzaren jabeek etxebizitzak besterentzea erabakitzen badute, prozedura hau jarraituko da:

— Udalari etxebizitza besterengantzeko erabakia jakinaraziko zaio.

— Udalak etxebizitza tasatuak eskatu dituztenen zerrenda eskatuko dio Etxebideri, eta horiek, erakunde horretan behar bezala inskribaturik egon beharko dute, salmentaren jakinarazpenaren aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen. Halaber, behin egindakoan, kontuan hartuko da etxebizitza tasatuen eskatzaileen udal zerrenda.

Caso de incumplimiento el interesado perderá el derecho adquirido para el cambio de uso y, como penalización, únicamente le será reintegrado el 50% del importe abonado en concepto de carga urbanística.

Artículo 7. Carga urbanística.

7.1. Las actuaciones que se impulsan suponen un incremento del número de viviendas y, por ello, a fin de preservar la relación entre viviendas y sistema de espacios libres, en esta ordenanza, se tiene en cuenta este aspecto.

Por ello, se exige del promotor de cada actuación que efectúe una aportación económica al Ayuntamiento; éste, por su parte, deberá destinar el conjunto de esas aportaciones a la consecución de suelo de dominio público para su adscripción al sistema de espacios libres.

Se abonará en concepto de cargas urbanísticas un % de la diferencia entre el valor de repercusión de las viviendas y el de los locales comerciales./ 54,93 € por m² (año 2014, incrementándose anulamente según el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca).

7.2. Esta cantidad establecida para el primer año de vigencia de la ordenanza se actualizará anualmente sobre la base del Índice de Precios al Consumo establecido por el Instituto Nacional de Estadística para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

No se autorizará cambio de uso alguno en tanto no se abone la carga urbanística correspondiente a la actuación, precisándose la presentación de la carta de pago de dicho abono o documento equivalente, en cada caso.

Artículo 8. Condiciones a las que quedará sujeta la autorización.

Al objeto de garantizar los fines perseguidos por el Ayuntamiento de Urnieta e incidir directamente en el mercado de la vivienda, evitando que se llegue a especular con los locales; y sin perjuicio de otras condiciones de carácter particular y que con base a la normativa vigente se acuerden fijar, las autorizaciones quedarán sujetas a las siguientes condiciones de carácter general que se harán constar en el convenio a formalizar.

Las viviendas que resulten de la transformación de locales en virtud de la aplicación de la presente ordenanza tendrán la calificación permanente de vivienda tasada municipal de Régimen Especial. El precio máximo de venta de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial, incluidos sus garajes y trasteros vinculados, será el establecido por la normativa autonómica de aplicación para las Viviendas de Protección Oficial Tasadas. En todo caso, no podrán superar el índice 1,5 respecto al precio máximo de las Viviendas de Protección Oficial de Régimen General.

A fin de garantizar que se observan los aludidos precios máximos de venta de las viviendas resultantes, se establecerá sobre las mismas un derecho de tanteo y retracto a favor del Ayuntamiento.

En caso de que los propietarios de las viviendas decidan proceder a su enajenación, el procedimiento a seguir será el siguiente:

— Se notificará al Ayuntamiento la decisión de enajenar la vivienda.

— El Ayuntamiento solicitará a Etxebide la lista de demandantes de viviendas tasadas, quienes deberán estar debidamente inscritos en esta entidad con anterioridad al 30 de noviembre del año anterior a la de la comunicación de venta. Se tendrá en cuenta así mismo, una vez haya sido elaborada, la lista municipal de demandantes de viviendas tasadas.

Udal etxebizitza tasatuen esleipenduna izateko ezinbestekoa izango da Urnietako udal etxebizitza tasatuei buruzko ordenantzak ezartzen dituen baldintzak betetzea. Horretarako, ordenantza horretan ezarritako esleipen-prozedurari jarraituko zaio.

9. artikulua. Etxebizitza bihurtutako aretoen erregistroa.

Udalak erregistro bat sortuko du, eta bertan, beren erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzea onartu zaien areto guztiak inskribatuko dira.

10. artikulua. Ziurtagiriak egitea.

Halaber, gauzatutako aldaketa hori egiaztatzekeo interesatuek eskatzen dituzten ziurtagiri guztiak Udalak egingo ditu.

11. artikulua. Katastroari jakinaraztea.

Jatorriz hirugarren sektoreko erabilerarako xedatuta zegoen areto batean etxebizitza-erabilera baimendu ondoren, xehetasun hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Hiri-lurren Katastroari jakinaraziko dio Udalak.

12. artikulua. Egitatezko egoeren erregularizazioa.

I. eranskinean agertzen ez diren eraikinetako aretoak etxebizitza gisa erabili eta egokitzea baimendu ahalko da, baldin eta ordenantza hau indarrean sartu baino lehen egin bada aldaketa, udal baimenik gabe, betiere jabeak hala eskatu badu eta testu artikulatuan ezarritako baldintza tekniko, araubide juridikoko eta prozedurazko guztiak betetzen badira.

Nolanahi ere, aldaketa horiek legeztatzeari dagokionez, ordenantza honetako 3, 4, eta 5. artikuluetan aurreikusitako baldintza arruntak bete beharko dira, eta, horrez gainera, baimenik gabe egindako obra horiei dagozkien tasa eta zergak ordaindu beharko zaizkio Udalari, bai eta Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legearen arabera aurrez egindako arau-hauste horri dagokion zigor ekonomikoa ere.

Azken xedapena.

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta handik 15 egunetara jarriko da indarrean.

Ordenantza honen indaraldia 5 urterako izango da. Orduan, etxebizitzak udalerrian duen arazoarekin loturiko xehetasunak berriro aztertuko ditu Udalak, eta aretoen erabilera-aldaketaren esperientzia hori baloratu ondoren, ordenantza honek indarrean jarraitu behar duen ala ez erabakiko du.

Halaber, dagokion azterketa egin ondoren, I. Eranskinean sartu beharreko eremu berriak finkatu ahal izango ditu.

I. ERANSKINA

Etxe-lurretako eremu finkatueta erabilera aldatzeko esku-hartzei buruzko ordenantzaren aplikaziotik kanpo gelditutako beheko solairuen zerrenda.

Akan kalea 09, 11 Behe solairu Osoa.

Errekalde 01 eta 03., 06, 08 10,12 eta 14 Behe solairu Osoa.

Aldapeta kalea 01.- Fatxada eta sarrera Aldapeta kaletik daukaten beheko solairuak.

Aranzubi kalea 02.- Fatxada eta sarrera Idiazabal kaletik daukaten beheko solairuak.

Para ser adjudicatario de las viviendas tasadas municipales será imprescindible el cumplimiento de los requisitos establecidos en la Ordenanza reguladora de la vivienda tasada municipal de Urnieta. A tales efectos, se seguirá el procedimiento de adjudicación establecido en la misma.

Artículo 9. Registro de locales convertidos en viviendas.

El Ayuntamiento creará un Registro en el que se inscribirán todos los locales cuyo uso ha autorizado alterar de terciario a residencial.

Artículo 10. Emisión de certificaciones.

Asimismo, el Ayuntamiento emitirá cuantos certificados soliciten los interesados para la acreditación de la variación producida.

Artículo 11. Comunicación al catastro.

Una vez sea autorizado el uso de vivienda en un local destinado originariamente al uso terciario, el Ayuntamiento pondrá dicha circunstancia en conocimiento del Catastro de Urbana de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a los efectos oportunos.

Artículo 12. Regularización de situaciones de hecho.

Podrán autorizarse aquellas actuaciones de uso y acondicionamiento de vivienda de locales emplazados en los edificios no incluidos en el Anejo I, que se hayan llevado a cabo de forma previa a la entrada en vigor de la presente Ordenanza, sin la correspondiente licencia municipal, siempre que se soliste por su propietario y se cumplan todas las condiciones técnicas, de régimen jurídico y procedimentales establecidas en este texto articulado.

No obstante, sobre la legalización de estas actuaciones, sin perjuicio del cumplimiento de los condicionados ordinarios dimanantes de lo previsto en los artículos 3, 4 y 5 de esta Ordenanza, recaerá la obligación de resarcir al Ayuntamiento con el pago de las tasas e impuestos correspondientes a las obras ejecutadas sin licencia y de la sanción económica que según la Ley del Suelo y Urbanismo correspondiente a la infracción previamente cometida.

Disposición final.

La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

La vigencia de la ordenanza se establece por un tiempo de cinco (5) años. En ese momento el Ayuntamiento procederá a la revisión de las circunstancias concurrentes relacionadas con la problemática de la vivienda en el municipio y, tras valorar la experiencia de los cambios de usos de locales, decidirá sobre la vigencia o no de la presente Ordenanza.

Asimismo, podrá establecer, previa elaboración de un preceptivo estudio, nuevos ámbitos a incluir en el Anejo I.

ANEJO I

Relación de plantas bajas excluidas de la aplicación de la Ordenanza reguladora de las actuaciones tendientes a la modificación de uso en ámbitos consolidados de Suelo Urbano residencial.

Akan kalea 09, 11, Planta baja Completa.

Errekalde 01 y 03., 06, 08 10,12 y 14 Planta baja Completa.

Aldapeta Kalea 01.- Plantas bajas con fachada y acceso desde Aldapeta kalea.

Aranzubi Kalea 02.- Plantas bajas con fachada y acceso desde Idiazabal kalea.

Geltoki kalea 02.- Behe solairu Osoa.

05.- Fatxada eta sarrera Geltoki ondoko pasealekutik daukaten beheko solairuak.

Ettxeberri plaza 01, 03, 05, 07, 09, 11, 13, 15, 17, Fatxada eta sarrera plaza aldera duten behe solairuak.

02, 04 Osoak.

Errementari kalea 02.- Behe solairua Osoa.

Idiazabal kalea 05A eta 05B (osoa), 7A, 7B, 09, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 39, 41, 43, 04, 06, 08, 10, 12, 16, 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30, 32,32 bis, 34, 38, 40, 42, 46, 48.

Fatxada eta sarrera Idiazabal kaletik daukaten beheko solairuak.

San Juan kalea 09, 11 eta 18.- Fatxada eta sarrera San Juan kaletik daukaten beheko solairuak.

Iurramendi kalea 01, 17, 17 bis, 19 – Behe solairua Osoa.

02, 24, 26, 28, 30.- Fatxada eta sarrera Idiazabal kaletik daukaten beheko solairuak.

Zelai Alde plaza 01, 02 03 eta 04 - Fatxada eta sarrera Idiazabal kaletik daukaten beheko solairuak.

Zubitxo plaza 01, 03, Fatxada eta sarrera Idiazabal kaletik daukaten beheko solairuak.

Azkorte 1 Behe solairua Osoa (Denontzat).

Urbita 2.

II. ERANSKINA

Erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko hitzarmen-eredua.

Erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko zk. hitzarmena.

Urnietan, ko aren (e)an.

ELKARTU DIRA

Batetik, jaun/andrea, adinduna, Urnietako bizilaguna. Urnietako Udaleko alkate-lehendakari gisa eta haren ordezkari gisa esku hartu du, horretarako ahalmena baitu,..... -n hartutako erabakiaren arabera.

Eta bestetik, jn./and., NAN zk. duena, eta bizilekua -n duena, zeinak bere izenean jardungo duen.

AURREKARIAK

Lehena:

..... jn./and., arean kale/etorbide/plazako zenbakian dagoen aretoaren jabe da, eta metro koadro ditu areto horrek.

Bigarrena:

20 koarenan, lehen aurrekarian aipatutako areto horren erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko baimena eskatu zuen.

Estación Kalea 02.- Planta baja Completa.

05.-Plantas bajas con fachada y acceso desde paseo junto a las vías.

Ettxeberri Plaza 01, 03, 05, 07, 09, 11, 13, 15, 17.- Plantas bajas con fachada y acceso hacia la plaza.

02, 04 Planta baja completas.

Herrerros kalea 02.- Planta baja completa.

Idiazabal Kalea 05A y 05B.-Planta baja (completa), 7A, 7B, 09, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 39, 41, 43, 04, 06, 08, 10, 12, 16, 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30, 32,32 bis, 34, 38, 40, 42, 46, 48.-

Plantas bajas con fachada y acceso desde Idiazabal kalea.

San Juan Kalea 09 11, y 18.-Plantas bajas con fachada y acceso desde la calle San Juan.

Yurramendi Kalea 01, 17, 17 bis, 19 – Planta baja completa.

02, 24, 26, 28, 30.- Plantas bajas con fachada y acceso desde Idiazabal kalea.

Zelai Alde Plaza 01, 02, 04 y 03, - Plantas bajas con fachada y acceso desde Idiazabal kalea.

Zubitxo Plaza 01, 03, Plantas bajas con fachada y acceso desde Idiazabal Kalea.

Azkorte n.º 1 Planta baja Completa (Denontzat).

Urbita n.º 2.

ANEJO II

Modelo tipo de convenio de modificación de uso terciario a residencial.

Convenio n.º de modificación de uso terciario a residencial.

En Urnieta, a de

REUNIDOS

De una parte, don/dña, mayor de edad, vecino de Urnieta, quien interviene en su calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Urnieta, y en representación del mismo, para lo que se halla debidamente facultado, en virtud de acuerdo adoptado con fecha

Y, de la otra, D./Dña., con DNI núm., con domicilio en, quien actúa en su propio nombre.

ANTECEDENTES

Primero:

D./Dña., es propietario de un local sito en el Área ... Calle/Avda./Plaza n.º con una superficie de metros cuadrados.

Segundo:

Con fecha de de 20...., solicitó licencia de cambio de uso, de terciario a residencial, del local referido en el antecedente primero.

Hirugarrena:

Alkate-lehendakari jaunak, 20....ko aren ko erabakiaren bidez, k egindako eskaera horren aldeko iritzia eman zuen. Eta halaber, eurotan finkatu zuen aipatutako areto horren erabilera aldatzeko eragiketari dagokion hirigintza-karga.

Laugarrena:

200....ko aren (e)an, jaun/andreak idazki bat aurkeztu zuen udaletxean, eta bertan, Udalarekin hitzarmen egoki bat izenpetzeko prest zegoela adierazi zuen, lehen aurrekarian aipatutako areto horren erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatu ahal izateko, arestian aipatutako 200....koaren ko erabakian adierazitako hitzetan.

Bi aldeek hitzarmen hau gauzatzeko nahiko gaitasun eta eskumen aitortu diote elkarri, eta horri begira, agiri hau izenpetu dute, ondorengo baldintzekin bat etorritz.

BALDINTZAK

Lehena:

Udalak baimena ematen du eremuan kale/etorbide/plazako zenbakian dagoen eta metro koadro dituen aretoaren erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko, jarraian adieraziko diren baldintzekin bat etorritz.

Bigarrena:

Aipatutako areto hori etxebizitza bihurtzeko, eragiketa horrek sortzen duen hirigintza-karga ordaindu beharra dago. Karga horren zenbatekoa eurotan finkatu da.

Adierazitako zenbateko hori ekitaldi honetan bertan ordainduko da eta hitzarmen honek ordainagiri gisa balio izango du.

Hirugarrena:

Aretoaren erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko baimen hau eman bada ere, ez zaie eragingo hirugarrengoen eskubideei, ez eta eragiketa horrek jabetza horizontalaren tituluan eragin ditzakeen aldaketei ere.

Laugarrena:

Erabilera-aldaketa hori gauzatu dadin, interesatuak etxebizitza gisa egokitzeko beharrezkoak diren obrak egin beharko ditu, udalaren nahitaezko baimena erdietsi ondoren.

Bosgarrena:

Aretoaren erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko beharrezkoak diren obrak amaitu, lehen erabilerrako baimena erdietsi eta etxebizitzara bizitzera etorri beharko da urtebeteko epean, hitzarmen hau izenpetzen den egunetik kontatzen hasita, obrak hasteko luzapen bat eman ezean. Hori betetzen ez bada, interesatuak erabilera-aldaketarako eskuratu duen eskubidea galdu egingo du eta, zigor modura, hirigintza-kargaren kontzeptupean ordaindutako zenbatekoaren %50 bakarrik itzuliko zaio.

Tercero:

El Sr. Alcalde-Presidente, mediante acuerdo de de de 20...., informó favorablemente la solicitud formulada por Así mismo, fijó en euros, el importe de la carga urbanística imputable a la operación del cambio de uso del citado local.

Cuarto:

Con fecha de de 200...., D./Dña. presentó ante el Ayuntamiento un escrito en el que ponía de manifiesto su disponibilidad de suscribir el oportuno Convenio con el Ayuntamiento para posibilitar el cambio de uso de terciario a residencial del local referido en el antecedente primero en los términos expresados en el acuerdo de de de 200.... anteriormente aludido.

Ambas partes se reconocen, recíprocamente, capacidad y competencia para formalizar el presente Convenio y, a tal efecto, suscriben este documento de acuerdo con las siguientes.

ESTIPULACIONES

Primera:

El Ayuntamiento autoriza el inicio del procedimiento para el cambio de uso de terciario a residencial del local sito en el Área Calle/Avda./Plaza n.º con una superficie de metros cuadrados de conformidad con las estipulaciones que a continuación se señalan.

Segunda:

La transformación del antedicho local en vivienda está sujeta al pago de la carga urbanística que origina tal actuación. Dicha carga se fijan en la cantidad de euros.

El importe expresado se abona en este mismo acto y el presente Convenio sirve como formal carta de pago.

Tercera:

La presente autorización para el inicio del procedimiento para la transformación de local de terciario a residencial se realiza sin perjuicio de derechos de tercero, así como de las modificaciones del título de propiedad horizontal que en su caso pueda exigir la intervención.

Cuarta:

Para que el cambio de uso se materialice el/la interesado/a deberá proceder a la ejecución de las obras correspondientes de adecuación de vivienda, previa la obtención de la preceptiva licencia municipal.

Quinta:

Las obras precisas para la transformación del local de terciario a residencial deberán encontrarse finalizadas, la licencia de primera utilización obtenida y la vivienda habitada en el plazo de un año contado a partir de la firma del presente Convenio, excepto en el caso en que se hubiera concedido una prórroga para el inicio de las obras. En caso de incumplimiento, se perderá el derecho adquirido para el cambio de uso y como penalización, únicamente se reintegrará el 50% del importe abonado en concepto de cargas urbanísticas.

Seigarrena:

Etxebizitza berriaren lehen erabilerarako baimena eman eta etxebizitza horretara bizitzera etorriak direla egiaztatu ondoren (hitzarmen hau izenpetzen denetik hasi eta urtebeteko epea baino lehen), Udalak erabilera-aldaketa horren eta aretoak duen etxebizitza-izaera berriaren behin betiko ziurtagiria emango du.

Zazpigarrena:

Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide bat ezarriko da Urnietako Udalaren alde, eta beraz, lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango du, baldin eta etxebizitza berriaren titularrak kostu bidezko eskualdaketari ekiten badio, baldintza hauekin:

— Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide hori mugagabeki gauzatu ahal izango da.

— Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide hori gauzatu gero Udalak ordainduko duen prezioa honakoa izango da: Eusko Jaurlaritzak Urnietan babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarri duen gehienezko prezioaren modulua bider 1,5 koefizientea.

— Jabetzaren inter vivos (bizien arteko) besterenganatze hori Udal Administrazioaren baimenaren menpe geratuko da, lehentasunez erosteko eskubidea bermatzeko.

— Udalari jabetza hori eskualdatzeko borondatea jakinarazi ondoren, Udalak 2 hilabeteko epean eskuratzeko eskubide hori gauzatu edo esleipen-prozedurari ekin beharko dio.

— Higiezin horretan egin ahal izan diren hobetze-lanek eta mantentze-lanek igo egingo dute besterenganatze-prezioa, betiere Udal Administrazioak horretarako onespena eman baldin badu, horien balio-handitzea eta balio-galtzea finkatuz.

Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide horrek eta hori gauzatzeko baldintzek bazter-ohar modura agertu beharko dute Jabetzaren Erregistroan egiten den finkaren idazpenean. Udalak ez du inola ere lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide hori gauzatzeko etxebizitza hori lehen mailako arbaso edo ondorengoei eskualdatzen baldin bazaie.

Eta adostasunaren frogara modura, bi aldeek agiri hau bi alen izenpetu dute, burualdean adierazitako lekuan eta datan.

Urnietan, 20....ko -aren (e)(a)n.

Alkatea, Mikel Pagola.

Sexta:

Una vez sea concedida la licencia de primera utilización de la nueva vivienda y efectuada la pertinente comprobación de que la misma se encuentra efectivamente habitada (antes del transcurso del periodo de un año a contar de la firma de la presente) el Ayuntamiento expedirá la certificación definitiva del cambio de uso producido y de la nueva condición de vivienda del local.

Séptima:

Se constituye un derecho de tanteo y retracto a favor del Ayuntamiento de Urnieta por lo que le corresponde un derecho de adquisición preferente en caso de que el titular de la nueva vivienda proceda a la transmisión onerosa de la misma con las siguientes condiciones:

— El Derecho de tanteo y retracto podrá ejercitarse indefinidamente.

— El precio que el Ayuntamiento abonará en caso de ejercitar el Derecho de Tanteo y Retracto será: El establecido por la normativa autonómica de aplicación para las Viviendas de Protección Oficial Tasadas. En todo caso, no podrán superar el índice 1,5 respecto al precio máximo de las Viviendas de Protección Oficial de Régimen General.

— La enajenación ínter vivos de la propiedad queda sujeta a autorización de la Administración municipal a los efectos de asegurar el citado derecho de adquisición preferente.

— Notificada al Ayuntamiento la voluntad de transmitir la propiedad, el Ayuntamiento en el plazo de dos (2) meses deberá ejercitar el citado derecho de adquisición o iniciar el procedimiento de adjudicación.

— Las mejoras y trabajos de mantenimiento que en su caso hayan podido efectuarse en el inmueble incrementarán el precio de enajenación siempre que las mismas hubieren sido aprobadas a estos efectos por la Administración municipal fijando su valoración y depreciación.

Este derecho de tanteo y retracto y las condiciones de su ejercicio deberán constar como nota marginal en el asiento de la finca en el Registro de la Propiedad.

En ningún caso se ejercerá el derecho de tanteo y retracto por parte del Ayuntamiento en el caso de transmisión de la vivienda a familiares ascendientes o descendientes en primer grado.

Y en prueba de conformidad, ambas partes suscriben este documento por duplicado en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Urnieta, a de de 20....

El Alcalde, Mikel Pagola.